

Berotegi Efektua Eragiten duten gasen emisioen aurrerapena 2023

Emaitzen behin-behineko aurrerapena



Herri-baltza
Sociedad Pública del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

© Ihobe SA, 2024ko ekaina

Edita: Ihobe, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila.
Eusko Jaurlaritza

Urkixo zumarkalea, 36, 6. solairua

48011 Bilbo

Tel.: 900 15 08 64

info@ihobe.eus

www.ihobe.eus

Edukia: Dokumentu hau Ihebek egin du, LIMIA & MARTIN, SLren lankidetzarekin.

Liburu honen edukiak, aurtengo edizioan, lizentzia honen pean argitaratzen dira:
Aitorpena - Ez komertziala - Creative Commons-en 3.0 Unported lan eratorririk gabe
(Informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)



Resultados

Batez ere, energia egoerari buruzko datuak (EEE eta CORES), emisio eskubideen salerosketako enpresen emisioak eta Espainiako Sare Elektrikoaren datuak erabiliz, 2023ko Euskadiko emisioen lehen balioespen hau egin da.

Berotegi Efektua Eragiten duten Gasen Emisioen Inbentarioaren Aurrerakin honek 16,9 milioi tona CO₂ balioesten ditu, behin-behineko datuekin bada ere, 2023. urterako¹. 1990arekin (20,7 Mt), 2005arekin (25,4 Mt) eta 2022arekin (18,5 Mt) alderatuz gero, hau ekarriko luke:

- » Emisioak %8,4 murriztu dira, 2022ko datuekin alderatuta.
- » Emisioak %33 murriztu dira, 2005eko datuekin alderatuta.
- » Emisioak %18 murriztu dira, 1990eko datuekin alderatuta.

Nabarmentzekoa da, 2023. urtean, Barne Produktu Gordinaren (BPG) hazkundera %1,8koa izan dela, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) egindako kalkuluen arabera.

Aurrerapen horretan, BEG emisioak 1,5 milioi tona CO₂ baliokide jaitsi dira, 2022tik 2023ra bitartean. Hori honako arrazoi hauekin azal daiteke:

- » Kalkuluen arabera, energia sektorearen emisioak %26 jaitz daitezke, 2022arekin alderatuta (-1,4 Mt), ziklo konbinatuaren bidez elektrizitatea 2022an baino gutxiago ekoizten delako, eta Ukrainako gerrak eragindako energia krisiaren aurreko balioetarako joera duelako.
- » **Industria sektorearen** emisioak %3 inguru gutxitzea espero da (-0,1 Mt), industria sektoreak gas natural gutxiago kontsumitzen duelako. Energia Egoeraren Behatokiaren datuen arabera, %7 jaitsi da kontsumoa.
- » **Garraio sektoreak** 2023rako 2022koen antzeko balioak izango lituzke, eta emisioak %1 inguru murriztuko lirateke (-0,03 Mt). Sektore horretako emisioak, batez ere, errepideko garraioan erregai fosilak erabiltzearen ondorio dira. Gasolinaren kontsumoa %13,7 igo da; A gasolioaren kontsumoa, berriz, %4,9 jaitsi, 2022koaren aldean.
- » Kalkulatzen da **bizitegi sektoreak** %18 murriztuko dituela emisioak (-0,1 Mt). Sektore honetako emisioak, ia guzti-guztiak, bizitegi eraikinetan banakako erabilerarako beroa sortzeko errekuntza instalazioetatik sortutakoak dira. Gas naturala da Euskadin erabilera horretarako kontsumo handiena duen erregaia, eta, eskura ditugun datuen arabera, 2023ko kontsumoa %18 jaitsi da, 2022ko datuekin alderatuta.

1. Balioespenak 2023. urteari dagozkion behin-behineko eta/edo balioetsitako datuetatik abiatuta egin dira. Behin betiko emaitzak 2025. urtean zehar argitaratuko dira.

- » Kalkulatzen da **zerbitzu sektoreak** %5 murriztuko dituela emisioak (-0,02 Mt). Zerbitzua ematen duten eraikinetan beroa sortzeko errekuntza instalazioen ondoriozko emisioak dira horiek. Gas naturala da Euskadin kontsumo handiena duen erregaia. 2022ko datuekin alderatuta, 2023an kontsumoa %8 murriztu da.
- » **Nekazaritza eta hondakinen sektoreetako** emisioak %4 inguru handituko dira (+0,03 Mt), eta %1 murriztuko (-0,004 Mt), hurrenez hurren, azken urteetako joerari eutsiz gero.
- » Araututako sektoreetatik datozen BEG emisioak, "EU ETS" emisio eskubideen Europako merkataritzaren araudiaren


barruan daudenak (oro har, industria edo energia instalazio handiak, emisio intentsibokoak), %21 jaitsi dira (-1,5 Mt) 2022ko datuekin alderatuta. Murrizketa hori, neurri handi batean, energia elektrikoa sortzeko instalazioek izan duten emisio murrizketaren ondorioa da (-%59, 2022arekin alderatuta); EU ETS emisio guztien %18 dira.

2005ean aplikatu zenetik, Euskadin, berotegi efektua eragiten duten gasen emisioak %49 murriztea lortu da sektore arautuetan² (-5,5 Mt).



2. Ez dira kontuan hartu erregimen orokorretik kanpo utzitako instalazioak, Emisioen Merkataritzari buruzko 1/2005 Legearen laugarren xedapen gehigarriaren arabera.

Emisioen bilakaera




1. irudia. Emisioen bilakaera, 1/2024 Legearen eta Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planeko helburuekin alderatuta.

Iturria: geuk egina.

2005-2023ko emisioen joera 2021-2024rako Energia Trantsizioaren eta Klima Aldaketaren Planean eta otsailaren 8ko Energia Trantsizioa

eta Klima Aldaketaren 1/2024 Legean ezarritako helburuak betetzeko bidearen azpitik egongo litzateke.



Metodologia

Aurrerapen horren emaitzak behin-behineko datuak eta/edo balioespenak erabiliz lortu dira, aurreko urteetan lortutako balioak kontuan hartuta. Balioespen horri esker, 2023tik espero

diren emisioen emaitzen hasierako balorazioa egin daiteke. 1. taulan ageri dira informazio ohar honetan aurkezten diren balioespen emaitzak emateko erabili diren datu iturriak.

Sektorea	Iturria
Energia	Energia sektoreko enpresen EU ETS txostenetako emisio datuak (ziklo konbinatuak, findegia eta kogenerazioa) eta emisio minoritarioen balioespenak, aurreko urteetako datuekin.
Industria	Industria sektoreko enpresen EU ETS txostenetako emisio datuak, industriako gas naturalaren kontsumoan izandako aldaketei buruzko datuak (EEEren Energia Egoeraren Behatokia) eta emisio minoritarioen balioespenak, aurreko urteetako datuekin.
Garraioa	A gasolina eta gasolio kontsumoaren aldaketa errepideko garraioaren sektorean (EEEren Energia Egoeraren Behatokia), CORES (Petrolio Produktuen Erreserba Estrategikoen Batzordea I) biomasaren ehunekoak kontuan hartuta, eta aurreko urteetako datuekin egindako abiazio eta itsas garraioko emisioen balioespena.
Bizitegia eta zerbitzuak	Zerbitzu eta bizitegi sektoreetako gas naturalaren kontsumoan izandako aldaketa (EEEren Energia Egoeraren Behatokia) eta zerbitzuen sektoreko gutxieneko emisioen balioespena, aurreko urteetako datuekin.
Nekazaritza	Aurreko urteetako emisio datuekin egindako emisioen balioespena.
Hondakinak	Aurreko urteetako emisio datuekin egindako emisioen balioespena.
Elektrizitate trukea	Inportatutako energia elektrikoaren aldaketa (REE) eta mix energetikoaren emisio faktoreak (REE).

1. taula. 2023ko EAEko emisioak balioesteko datu iturriak.



Herri-baltza
Sociedad Pública del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE